

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**L DOKUMENTUA. PLANAREN LABURPEN EXEKUTIBOA**

---

**PLANAREN LABURPEN EXEKUTIBOA**

**AURKIBIDEA**

<b>1.</b>	<b>PLANAREN LABURPEN EXEKUTIBOA.....</b>	<b>3</b>
<b>1.1.</b>	<b>ARAUDIA ETA APLIKAZIOA</b>	<b>3</b>
<b>1.2.</b>	<b>PLANAREN LABURPENA</b>	<b>3</b>
1.2.1.	PLANAREN OSAKETA.....	3
1.2.2.	PLANAREN HELBURUAK.....	4
1.2.3.	EGUNGO EGOERA.....	6
1.2.4.	PROPOSATUTAKO ORDENAZIOAREN LABURPEN DESKRIBATZAILEA.....	9
1.2.5.	GENERO ARLOKO IKUSPEGIA.....	19
1.2.6.	HAURTZARO ETA NERABEZAROAREN ARLOKO IKUSPEGIA.....	19
<b>1.3.</b>	<b>LABURPEN KOADROAK</b>	<b>19</b>



## **PLANAREN LABURPEN EXEKUTIBOA**

### **1. PLANAREN LABURPEN EXEKUTIBOA**

#### **1.1. ARAUDIA ETA APLIKAZIOA**

Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testuategia onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 25.3 artikulua xedatzen duenez, hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko edo aldatzeko prozeduratan, jendaurrean jartzen den dokumentazioaren laburpen exekutibo bat egon behar du, proposatutako antolamenduak aldatzen dituen indarrean dagoen antolamenduaren eremuak jaso behar dituen eta egiten zaien aldaketaren irismena zehaztu behar duena. Hirigintza-planek dokumentu, eduki eta aurreikuspen ugari izatea da laburpenaren beharrezko zioa, dokumentu horiek kontsultatzen dituzten herritarren lana erraztu behar delako.

#### **1.2. PLANAREN LABURPENA**

##### **1.2.1. PLANAREN OSAKETA**

Plana honako dokumentu hauek osatua da:

- A Dokumentua. Informazio memoria
- B Dokumentua. Hartutako erabakiaren justifikazio memoria
- C Dokumentua. Ingurumen Arloak HAPO-n txertatzearen justifikazio memoria
- D Dokumentua. Bideragarritasun eta Jasangarritasun ekonomikoa
- E Dokumentua. Katalogoa
- F Dokumentua. Hirigintzako arau orokorrak.
- G Dokumentua. Hirigintzako arau partikularrak eta antolamendu xehatuaren planoak.
- H Dokumentua. Eraikuntzako eta urbanizazioko ordenantzak
- I Dokumentua. Informazio planoak
- J Dokumentua. Egiturazko antolamenduaren planoak
- K Dokumentua. Ingurumen-Azterketa Estrategikoa
- L Dokumentua. Planaren laburpen exekutiboa

A Dokumentuan, Hirigintza Antolaketarako Plan Orokorraren Aurrerakin dokumentuan jasotako informazioa jasotzen da berriro. Udalerriaren plangintza honen aurreko egoera islatzen da: ingurune fisikoari buruzko informazioa, biztanleria, etxebizitza eta egoera ekonomikori buruzko informazioa, Alkizako aurreko hirigintzako plangintza orokorra indarrean jarri zenetik garatutako hirigintza aurreikuspenak, HAPO hau garatzeko kontutan hartu beharreko udalaren gaindiko lurralde plangintzari buruzko informazioa eta HAPO hau garatzeko eraman den prozeduraren deskripzioa, bereziki herritarren parteartzearen prozesua eta emaitzak azalduz.

B Dokumentuan, izenak iradokitzen duen eran, HAPO honetan definitutako antolakuntzaren zioa eta lege egokitasuna justifikatzen dira.

C Dokumentuan, ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozeduran zehar administrazioek jarritako baldintzak HAPO-ren dokumentu arautzaileetan ("D. Jasangarritasun Ekonomikoaren Memoria", "E. Katalogoa", "F. Hirigintza Arau Okorrrak", "G. Hirigintza Arau Partikularrak eta Antolamendu Xehatuaren Planoak", "H. Eraikuntzako eta Eraikuntzako Ordenantzak", "J. Egiturazko Antolamenduaren Planoak" eta K Dokumentua. "Ingurumen-Azterketa Estrategikoa") txertatzearen justifikazioa egiten da.

D Dokumentuan, HAPO-ren ordenazioak ekonomikoki bideragarriak direla justifikatzen da. Lehendabizi, planteatzen diren ordenazioak garatzeko behar diren gastuen eta ordenazioaren bidez lortuko diren diru-sarreraren arteko erkatzea positiboa dela justifikatzen da, eta ondoren, ordenazio horiek eskatuko dituzten zerbitzuak emateko Udala gai izango den justifikazioa egiten da.

E Dokumentuan, bere interes artistiko eta arkitektonikoa dela eta, babestu beharreko higiezin zerrenda osatzen da eta bakoitzari fitxa bat egiten zaio, interes hori ematen dioten bere ezaugarriak deskribatzen dituena, lege sektorialek ematen dionten babes mailak zehazten dituena eta higiezin horien gain obrak egin ahal izateko bete beharreko baldintzak oinarritzen dituena.

F Dokumentuan, planaren aplikaziorako eta egituraketarako beharrezkoak diren osagaien eta baliabide tekniko eta legalen definizioa egiten da, eta haien aplikazio erak eta hain arteko elkar ekintzen erregulazioa egiten da. Hauek dira kontutan hartzen diren atalak:

Aplikazio eremua, aplikazio baldintzak, aplikazio epeak eta berrikusteko baldintzak.  
Ordenatutako eremuetan gauzatu daitezkeen hirigintza-erabileren definizioa.  
Erabilren araberrako ordenatutako hirigintza barrutien kalifikazio orokorraren araubidea.  
Erabileren araberrako ordenatutako lursailen kalifikazio xehatuaren araubidea.  
Lursailen kalifikazio xeatuaren araberrako gauza daitezkeen eraikinen erabilera arautzea.  
Lurzoru urbanizezinen antolatze orokorra, erabilerak, eraikitzea eta instalazioak erregulazioa.  
Lurzoruaren sailkapena, hiri-lurzoru, lurzoru urbanizagarria eta lurzoru urbanizaezina kategoriatan.  
Plangintza gauzatzeko araubidea.  
Hirigintza barrutien eraikigarritasuna esleitzeko araubidea.  
Hirigintza barrutien urbanizazioa gauzatzeko araubidea.  
Eraikuntzarako araubide orokorra  
Ingurumena, paisaia eta natura babesteko araubidea.

G Dokumentuan, hirigintza-barruti bakoitzaren definizioa egiten da, idazki eta plano bidez. Sailkatzea, kalifikazioa, erabilera eraikigarritasuna, eraikinen forma, sistema orokorrak, tokiko sistemak eta gauzatze erak eta epeak zehazten dira.

H Dokumentuan, eraikinek eta urbanizazioek bete behar dituzten forma, eraikitze eta kalitate baldintzak definitzen dira.

I dokumentuan, A Dokumentuari dagozkion planoak jasotzen dira.

J Dokumentuan, HAPO-ren ordenazio orokorra deskribatzen duten planoak jasotzen dira. Hauek: Katalogoa, Sailkapena, Hirigintza Barrutien Mugaketa, Kalifikazio orokorra, Sistema Orokorrak, Azpiegiturak.

K dokumentuan, ingurumenaren garapen eta babeserako jarraitu beharreko araubidea definitzen da.

## **1.2.2. PLANAREN HELBURUAK**

Udalerriko lurzoru HAPO honen balio eperako ordenatzea da helburua.

Plangintzak erantzun beharreko lurzoruaren antolatzearen eskakizun berriak zorrotz aztertu, bideratu beharreko garapenen gehiegizko dimentsionamendua saihestu, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen, Lurralde Plan Partzialen eta Sektorialen zehaztapenetara egokitu eta udalerrri mugakideen ordenazioekin bat egin.

Ahal den neurrian, hazkunde demografikoa eta lurzoruaren artifizializazioa banantzen saiatzea, hirigunean dauden lurzoru antropizatu gutxi horiek berrerabiltzea sustatuz eta horri lehentasuna emanez, urbanizatu gabeko lurzoru naturalak erabat artifizializatu beharrean.

### **1.2.2.1. INGURUMEN ARLOKO HELBURUAK**

Ingurumen-kalteak prebenitzeari lehentasuna ematea, zuzeneko eta zeharkako eraginak murriztuz.

Baliabide hidrikoak eta lurraldearen karga-ahalmena kontuan hartzea lurzoruaren erabilererako, horiek babestuz eta lehengoratzuz.

Garapen berriek ingurumenean duten eragina minimizatzea.

Dibertsitate biologikoaren galera geldiaraztea.

Zaindu egingo dira lehentasunezko banaketa-eremuak, interes bereziko eremuak eta arriskuan dauden flora eta fauna-espezieen puntu sentikorak, kudeaketa-plana izan edo ez.

Paisaiaren faktorea plangintzan txertatzea, haren babesa, kudeaketa eta antolamendua sustatuz. Ingurune garbi eta osasungarria bermatzea, airearen kalitatea hobetuz.

Bai eraikuntzak oro har (eraikinak, egiturak, urbanizazioa) bai haren funtzionamenduak eragindako baliabideen (ura, energia eta materialak), hondakinen eta kutsatzaileen balantzean eragin negatiboa murriztea, zikloak ixtera bideratuta.

#### 1.2.2.2. EKIPAMENDUEI BURUZKO HELBURUAK

Ekipamendu berrien beharra kuantifikatzea eta justifikatzea.

Behar diren ekipamenduak garatzea, tokikoak zein udalez gaindikoak. Horretarako, ondare eraikia eta urbanizatua birgaitzea.

Errepide- eta zerbitzu-azpiegiturak ezartzea udalerraren irisgarritasuna eta lurralde integrazioa bermatzeko.

#### 1.2.2.3. BIZITEGI-ERABILEREI BURUZKO HELBURUAK

Hiri-barruti berria ezartzea, lurzoru urbanizatuaren ondoan eta egungo hiri-bilbean oinarrituta, mota guztietako garraio mugimenduak murrizteko eta bide eta zerbitzu berrien beharra minimizatzeke.

Biztanleria egoiliar gaztea finkatzea, eta, horretarako, lurzoruaren eskaintza nahikoa eta kontrolatua sortzea, kokapenari, prezioari eta tipologiari dagokienez baldintza egokietan, aurretik daudenekin eta lurraldearen egokitasunarekin bat etorritz.

Hiri-erabileretara bideratutako lurzoruaren kontsumoa minimizatzea, lurralde-planetatik eratorritako beharrei zorroztz erantzutera mugatuz eta lehendik dagoen hiri-eremuak eskain ditzakeen baliabideen erabilera optimizatuz. Horretarako, hiri-lurzoruko zuzkidura-jarduketak bultzatuko dira, eraikigarritasun haztatua handituz.

Dentsitate ertaineko hiri-eremu dentsuagoak, trinkoagoak eta askotarikoagoak lehenestea, ahal den neurrian dentsitate oso baxuko bizitegi-garapen berriak eta etxebizitza isolatu edo atxikien tipologia saihestuz, Alkizako hiri-bilbe finkatuan planteatutako jarduketa txikiak izan ezik, horiek hiri-eredu sakabanatua, lausoa eta lurzoruaren, energiaren eta materialen kontsumitzaile handia sustatzen baitute. Horretarako, Lurzoruaren Legearen estandarretara egokitutako dentsitateak dituzten eta, beraz, blokean irekitako eraikuntzan garatzen diren sektoreak diseinatuko dira.

#### 1.2.2.4. LURZORU URBANIZAEZINARI DAGOZKION HELBURUAK

Lurzoru urbanizaezinaren antolamendu egokia ezartzea, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan (eta dagokion jarduera sustatuen, onargarrien eta debekatuen matrizea aplikatzea), Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko LPPan eta Nekazaritza eta Basozaintzako LPSan ezarritako antolamendu-kategorien bidez, landa-ingurunea babesteko, haren garapen ekonomikoaren, ekosisteman duen eginkizunaren (lehengaien hornidura, ingurunearen kontserbazioa, etab.) eta ingurumen- eta paisaia-kalitatearen baldintza egokien arteko oreka bilatuz.

Landa-lurzoruan esku hartzeko, erabiltzeko eta eraikitzeko araubidea arautzea, ingurune horren berezko balioak babestuz, biodibertsitatea bultzatuz eta, aldi berean, haren produktibitatea sustatuz, lehen sektorearen garapenari, kalitate bereziko lurraldeaz gozatzeari eta paisaiaren antolamenduari lotuta.

Landa-ingurunean dauden eraikinen erabilera arautzea, lurraldearen ezaugarrien kontserbazioa bermatuko duten neurriak sustatuz, dauden eraikinak hainbat etxebizitzatan zatituz.

Baserriak beren lursailetatik bereiztea eragotziko duten arauzko neurriak ezartzea. Horretarako, lehendik dauden eraikinei lotutako lurzati minimo eta zatiezinak arautuko dira.

Landa-lurzatiak 10.000 m<sup>2</sup>-ra arte bereiztea ahalbidetzea, landa-ingurunea koniferoen landaketa masiboetatik babestuz.

Paisaia- eta ingurumen-balioen babesa arautzea. Paisaiari balioa ematea, faktore ekonomiko bereizle eta baliabide turistiko gisa.

Kultura-bide tradizionalei balioa ematea, paisaiarako irisgarritasun- eta gozamen-puntu bikain gisa.

#### 1.2.2.5. JARDUERA EKONOMIKOEN LURZORUEI DAGOZKIEN HELBURUAK

Ez da jarduera ekonomikoetarako lurzoru berririk sailkatzen. Udalerrian dauden jarduera ekonomiko industrialen, komertzialen edo tertziarioen erabilerak finkatuko dira.

#### 1.2.2.6. AZPIEGITUREI BURUZKO HELBURUAK

Epe luzera hirigunearen ordezeko bide bat gauzatzetik egon dadin, egungo trafikoak arintzeko eta plazaren, udalaren, elizaren eta abarren ingurunea aldi baterako edo behin betiko oinezkoentzako bihurtzeko aukera egon dadin, ordenazio berriarekin aukera hori ahalbideratzea eta horren zatia izan daitekeen bide sistema abiatzea,.

#### 1.2.2.7. KULTURA- ETA ARKITEKTURA-ONDAREARI BURUZKO HELBURUAK

Tokiko ondare arkitektonikoa balorizatzen eta kontserbatzen lagunduko duten arauzko neurriak ezartzea, batez ere jatorrizko baserriei, balioa duten eraikin erlijiosoei eta egitura megalitikoei lotutakoak.

### 1.2.3. EGUNGO EGOERA

#### 1.2.3.1. INGURUMEN ARLOKO EGOERA

Ingurune fisikoaren egungo egoerari buruzko informazioa, HAPO honen K Dokumentua den Ingurumeneko Azterketa Estrategikoko 5 kapituluan, Ingurumenaren Egungo Egoeraren Alderdi Garrantzitsuak izenburua duen horretan jasota dago, bere osagarri topografiko, geologiko eta geomorfologiko, hidrologiko eta hidrogeologiko, edafologiko eta agrologiko, klimatologiko, biogeografiko, landareriako eta faunistikoei dagokienez.

Horien gain, babestutako espazio naturalak, igarobie naturalak eta maila altuagoko planifikazioak definitutako intereseko espazioak aztertzen dira.

Kapituluaren 5.5 atalean ingurumenaren arrisku eta arazoak aztertzen dira: airearen kalitatea, kalitate akustikoa, zoruen kutsadura, akuiferoen kutsadura, arazo geoteknikoak, eremu higagarrien higadura-arriskua, arrisku sismikoa, sute arriskua eta ehizak eragindako arriskua.

Kapituluaren 5.6 atalean paisaia aztertzen da, interesa duten zonak deskribatuz. 5.7 atalean berriz, ondare arkeologiko eta arkitektonikoa deskribatzen da. 5.8 atalean ingurumeneko eta paisaiako unitate homogeneousak deskribatzen dira.

Azkenik 5.9 atalean, aurreko datu guzti horien azterketatik eratorriko emaitzak azaltzen dira.

#### 1.2.3.2. GIZARTE ETA HIRIGINTZAKO ARLOETAKO EGOERA

Alkizako biztanle-dentsitatea hurbileko udalerriekin eta probintziarekin alderatuta oso baxua da 31,3 biz/km<sup>2</sup>. Landa lurtean dago erroldatuta Alkizako biztanleriaren %48. Biztanleriaren hazkuntza handia eman sen 2001 et 2011 urteen artean (%39) baina ondoren hazkuntza %4-ra jaitsi da.

Egun, Erroldako datuen arabera 107 lagun daude 20 urte baino gutxiago dutenak eta 94 lagun 16 urte baino gutxiago dutenak. Biztanleria osoarekiko portzentaia %29 eta %25 dira hurrenez hurren. Portzentaia altua da Gipuzkoako eta AEA-ko portzentaiekin alderatuta, hauetan 18 urte baino gutxiago duten lagunak %18 eta %17 inguru dira hurrenez hurren. Datu hauek aztertuta, hurrengo urtetan etxebizitzaren eskaera handitzea eragingo duela ondorioztatu daiteke. Egun 20 eta 35 urte bitarteko 40 bat pertsona daude Alkizan, etxebizitzako erosle izan daitezkeenak. Hurrengo 8 urtetan adin tarte horretara 66 lagun pasako dira eta egun daudenetatik 27 aterako dira. Erosle potentzialak 39 lagunetan haziko da.

Euskaldunen portzentaia %89,53 da. Euskadiko Toki-erakundeetan Hizkuntza Ofizialen Erabilera Instituzionala eta Administratiboa Nomalizatzeari buruzko 179/2019 dekretuak xedatutakoaren arabera, "arnasgunea" da.

D ereduan matrikulatutako umeen kopurua (2023-2024 ikasturtean) 47 da. Alkizan beste hezkuntza eredurik ez dago.

Erroldako datuen arabera 2020ko urtarrilaren 1-ean 3an, 178 etxebizitza zeuden guztira; horietatik 85 kalean eta 93 landa lurtean. Etxebizitza horietatik 45 zeuden hutsik, 19 kalean eta 26 landa lurtean. Etxebizitza hutsen portzentaia %25,3 da. Kaleko etxebizitzetara dagokenez %22,4, eta landa lurteko etxebizitzetara dagokenez %28,0.

INE-k ematen dituen estatistiketan ikus daitekeenez, saldu zen azken etxebizitza berria 2008 urtean izan zen. 2007 eta 2008 urteetan guztira 21 etxebizitza berri saldu ziren, ondoren ez da gehiago saldu. Berriak ez ziren 6 etxebizitza saldu ziren 2009 eta 2017 urteen artean, azken hiru urtetan ez da etxebizitzarik saldu.

Jarduera ekonomikoei dagokien 2022 urtean 29 establezimendu zeuden Alkizan. Denak 10 langile baino gutxiagoak. Landa lurtearen ustiapenetik bizi diren baserriak 2 dira soilik.

Biztanleria aktiboa %45 da. Langabezia %3-an dago. 16-24 urteko adinako gazterik ez dago langabezian. 25-34 adinakoaren artean langabe bakarria dago, emakumea dena.

Norbanakoen errenta 23.107 € da batez-beste. Arrakala dago gizon eta emakumeen artean, hauen kaltean, %59.

Lurzoruaren erabileraren aldetik, udalerririk dituen 1.187 Ha-etatik %99 landa-lurra da, egoitzarako lurzorua 4 Ha dira, %0,33 eta sistema orokorren lurzorua beste hainbeste.

Zoru urbanizaezinaren zati handi bat Hernio-Gazume (ES2120008) Kontserbazio Bereziko Eremuak hartzen du. 521 Ha, udalerriko azalera guztiaren %43-a.

Hondakinen kudeaketari dagokionez Alkiza Tolosaldeako mankomunitatearen barruan dago. Herrian sortzen den hondakinen kopurua txikia da. Hondakin organikoak konpostagailuen bidez kudeatzen dira, ez da organikoak hartzeko edukiontzirik.

Herriagunearen ur beltzak biltzeko eta garbitzeko araztegi biologikoa dauka, zizareen bidez ura tratatzen duena. Etxe isolatuetako askok hobi septikoa daukate, hala ere, ezer ez dutenak badaude ere.

2017ko abenduaren 21eko Agindua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak jasaten edo jasan dituzten lurzoruen inbentarioa eguneratzen duena da arlo honetan daukagun azken erreferentzia. Alkizan lursail bakarria dago lurzoruen inbentarioan, udalerriko iparraldeko muturrean, Larraul eta Asteasuko mugak bat egiten duten puntuan. 893,84 m<sup>2</sup>-ko azalera dauka.

#### 1.2.3.3. ERAGINA DUEN UDALAZ GAINEN PLANGINTZA

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) 2019.

Tolosako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala, 2020.

Kantauriko isurialdeko Lurralde Antolaketarako Plana, 1998.

Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko LAP-ren aldaketa, 2013.

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren 2015-2021 zikloko Plan Hidrologikoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala, 2014.

Energia Eolikaren Lurralde Plan Sektoriala.

Gipuzkoako Hiri-Hondakinen Azpiegiturretako Lurralde Plan Sektoriala.

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala.

#### 1.2.3.4. AURREKO UDAL PLANGINTZAREN EGOERA

Alkizako Arau Subsidiarioen hirigintza-egikaritzapenerako unitate guztiak garatu dira, baita 2003. urteko Arau Subsidiarioen 1. aldaketaren ondoriozko Peruialdea 1. sektorea ere. Egun daukagun Alkizako herri-gunearen forma Arau Subsidiarioen Garapenari zor diogu. Jatorrizko gunea, eraikin publikoen ingurukoa, bi norabideetan luzatu da, GI-3630 errepideari itsatsita.

58 etxebizitza eraiki dira Arau Subsidiarioen aplikazioaz, herrigunean 50 eta 8 landa lurrean.

Horren gain, hurrengo zuzkidura publikoak eraiki dira;

Bidatek teknologiako ur beltzen araztegia (2010), Sendagilearen kontsulta, kirol aretoa, areto balioanitzak eta larrialditarako bi etxebizitza hartzen dituen Don Juanena etxeke birgaitzea (2012)

Alkizako eskola berria, eskola zaharra ordeztuta (2020).

#### 1.2.3.5. LANDA-LURRAREN EGOERA

Udalerriaren kokaleku den geografiak azaltzen duen izaera malkartsuak, udalerriaren barnean dauden bi erreka nagusiek, Arraiaga erreka eta Mandabe erreka, eraturako bi ibarrekin batera, hainbat auzo elkarberieztatu bideratu du.

Hernio Bailara izena ematen dion mendi-taldearen saihaspean kokatzen da. Inguruko paisaia, bertako zuhaitzi, kararizko gailurreria eta ur-jauziz osaturikoa, gogoan izatekoa da.

Aldapa Bailaran mendiko baldintzak errepikatzen dira, goibeheak lauagoak eta ez halako haundiak badira ere. Irspidea Larrauldik egiten da, hilerrirako errepideak jarraiki.

Arana Bailara ibarrean zehar sakabanaturik dauden hainbat baserri besarkatzen ditu.

Sakamidra. Halako izen arranditsuko eremu honetan Zumitza eta Aginaga armarridun etxeak biltzen dira.

Azaldegi Auzoa osatzen duten baserriak Aiztondo ibarrera jaisten den errepidearen inguruetan banatzen dira.

#### NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA BASOGINTZA

Eustaten 2020-ko datuen arabera, udalerriak dauzkan 1.201 Ha-tatik 199 Ha dira nekazaritza-azalera erabilgarria.

Nekazal ustiapenera emandako azalera 494 Ha dira. Landutako lurak 33 Ha. Larre iraunkorrak 166 Ha. Bestelakoak 296 Ha.

Lur landuetatik belarkiak eta familia-baratzeak 9 Ha dira (%28). Frutarbolak 15 Ha (%44,9). Mahastiak 8 Ha (%25,2) eta bestelakoak 1 Ha (%1,9).

Abelburuak dira: 325 behi-aziendak 604 Ardi-aziendak, 47 ahuntz-aziendak eta 24 zaldi-aziendak. Ez dago txerri, hegazti edo untxi erregistraturik.

Nekazaritza ustiatagietan urteko lan unitateak 25 dira. Titularrak 9, ezkontideak 4, bestelako senideak 2, soldatapekoak 9.

Horren gain, INE-ren datuen arabera, 411 Ha daude baso ustiapenerako.

#### INGURUMENA

Udalerriko lurzorua erabilerak dikotomia argia erakusten du: behealdean, 400 metro inguruko altueraraino, baserrietako laborantza-lurak eta sega-belardiak intsinis pinuaren birpopulaketekin txandakatzen dira; Hernioko gailurraren, kareharrizko harkaitzekin eta mendiko larreekin, eta jendea bizi den eremuaren artean, berriz, 500 Ha-tik gorako baso-orban bat kontserbatzen da oraindik, hainbat koniferoren landaketa-orbanekin tartekatzen dena eta hirigunearen inguruetaraino iristen dena.

Hernio-Gazume mendiguneak Eusko Jaurlaritzak Natura 2000 Sarean sartu zuen, eta Batasunaren Intereseko Leku (GKL) gisa izendatua izan zen. GKL horren mugetan Alkizako udalerriaren 520 Ha sartzen dira, GKLaren 2.158 Ha-ren ia laurdena, eta, udalerriaren ikuspegitik, udalerri guztiaren azalaren erdia.

Alkiza barruko GKL-ren jabetza oso banatuta dago, 100 jabe baino gehiagoren artean. 34 hektareako lursaila du Udalak, pagadiak, mendiko larreek eta harkaitzek okupatuta.

Hernio-Gazume Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen da 2012 Urriaren 16ko 219/2012 Dekretuaren bidez. Dekretuak kontserbazio-neurriak onartzen ditu. Antolatzea egituratzeko eremuaren zonifikazioa egiten du. Horrek eragina izango du udalerrriaren HAPO definitzean. Hauk dira definitu dituen eremuak: Bilakaera Naturaleko Eremuak (BNE), Babes Zorrotzeko Eremuak (BZE), Leheneratze Ekologikoko Eremuak (LEE), Baliabideen Aprobetxamendu Estentsiboko Eremuak (BAEE), Baliabideak Aprobetxatzeko Eremuak (BAE), Erabilera Publikoko Zonak (EPZ) eta Hiriguneak eta azpiegiturak (HA).

#### 1.2.3.6. ONDAREAREN EGOERA

Kalifikatuta bi higiezin daude: Hernioko estazio megalitikoa eta Itxurain tumulua

Diputazioaren katalogoan: Bengoetxea eta Garaikoetxea baserriak daude.

Eusko Jaurlaritzak inbentariatua Akizalete baserria dago.

Eusko Jaurlaritzak behin-behinean inbentariatua Perurena etxea dago.

Definitu gabe daudenak hauek dira: Agarrola, Aritzategi Garaikoa, Albiztegi, Altxorbe, Antzieta, Apaiztegi, Arantabene, Arpide, Bentlzalaga Txiki, Berandoain, Udaletxea, Erretoretxea, Leteberri, Donmigelena eta Donjaunena eta Otsamendi Goikoa baserri eta etxeak.

Inbentariatzeko eskatuta daudenak: Aginaga baserria, Aritzategi Barrena baserria, Arpide Gain baserria, BelakumIII koba, Etxesagasti baserria, Garmendia baserria, Garro baserria, Intxaurrandiaga baserria, San Martin Tourseko eliza eta Zumitza baserria.

#### 1.2.4. PROPOSATUTAKO ORDENAZIOAREN LABURPEN DESKRIBATZAILEA

##### 1.2.4.1. LURZORU HIRITARREZINAREN ANTOLAMENDUAREN DESKRIPZIOA

Lurraldearen zonifikazioak diagnostiko-unitateen agregazioen bidez sortzen diren lurralde-zatiak ematen ditu, zeinek, ezaugarri bereziak eduki arren, kudeaketa-helburu berberak dituzte.

Horrela, lurralde-zati horiek, Zonak dituko ditugunak, HAPOren zehaztapenetatik erator daitezkeen erabilera edo jarduera jakin batzuk jasateko edo ez jasateko modu homogeenokan jokatzeko duten lurraldeko barrutiak dira. Argi dago horrela lortzen dela lurralde-diagnostikoa pragmatikoa izatea, eta Ingurumen Unitateak benetako unitate operatibo bihurtzea hirigintza-plangintza idazteko.

Antolamendu Kategorien araberrako zonakatzek etorkizunean jarduketa espezifikokoak egiteko aukera ematen du, ezaugarri bereziak izan arren kudeaketa-helburu berberak dituzten lurraldeko lurzati guztietarako.

Ildo horretan, HAPO honetan, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean eta EAeko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan ezarritako lurzoru urbanizaezinaren antolamendu-kategoriak jarraitu dira, Alkizan aplikagarriak direnak hartuta:

Horregatik, Alkizako lurraldea, antolamenduari eta kudeaketari dagokienez, honako zona orokor hauetan banatzen da:

- D1.- BABES BEREZIA
- D2.- AZALEKO UREN BABESA
- D3.- INGURUMENAREN HOBEKUNTZA
- D4.- BASOA
- D5.- BASOA. MENDI URRIA
- D6.- NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZTA. LANDAZABALA (TRANTSIZIOKO LANDA- PAISAIA)
- D7.- NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZTA. BALIO ESTRATEGIKO HANDIA

Horren gain, Baldintzatzaile gainjarri hauek ditugu:

Azpiegitura berdea:

- Korridore ekologikoen sarea
- Beren ingurumen-balioengatik babestutako espazioak
- Interes geologikoko zonak

Arrisku naturalei eta klima-aldaketari buruzkoak:

- Zona higagarriak, % 30etik gorako maldak eta irristatzeko arriskua duten eremuak
- Akuiferoak kutsatzeko arriskua duten zonak
- Ibilguak eta ur-bilketak babesteko zonak
- Sute-arriskua duten zonak

Arkeologia- eta arkitektura-ondareari eta paisaiari buruzkoak:

- Ondarea interesa duen zonak
- Paisaia interesa duen zonak

Kutsadurari buruzkoak

- Zona akustikoak
- Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak
- Energia berriztagarriak ezartzeko sentikortasuna

Zona guzti horien antolatzea, eduki ditzaketen erabilerak eta har ditzaketen eraikin eta obra publikoak definitzen dituen, HAPO honen F Dokumentuan zehazten da, gorago esan dugu eran, ingurumen fisikoaren erabilerari eta bere babesari eragiten dion Lurralde-Antolamendu Partzial eta Sektoriala estuki jarraituz.

Alkizako lurzoruaren parte handi bat hartzen duen HERNIO-GAZUME KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAk, Natura 2000 Sareko Naturagune Babestuak, garrantzi handia dauka zonifikazioaren ikuspuntutik. Babes Bereziko (D1) zona da HAPO honen arabera, baina bere baitan 219/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, Hernio-Gazume (ES2120008) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duena eta eremu horren kontserbazio-neurriak onartzen dituenak ezartzen dituen lurzoru kategoriak kontutan edukitzen dira eremuaren erabiltze eta babes baldintzak definitzeko, KBE kanpoko zonek duten zehaztapen maila berbera edukiko dutelarik.

## BABES BEREZIA

Natura- eta zientzia-balio garrantzitsuak dituzten eremuak dira, oso hauskorak direnak flora-, fauna- eta/edo kultura-adierazpenen ondorioz. Horiek erabiltzeko muga handiak daude.

LAGetan zehaztutakoaren arabera, kategoria hori, Alkizako udalerrinari dagokionez, ondo kontserbatutako baso autoktonoei, egoera onean dauden ibai-konplexuei, gailurreko eremuei edo landaretza bereziko eremuei eta, oro har, ekologiarren, kulturaren, paisaiaren ikuspegitik baliotsuak diren elementu guztiei aplikatuko litzaieke, edo hori guztia batera.

Alkizako udalerriak, nabarmentzen diren eta kontuan hartu behar diren bi kokagune hauek ditu:

Natura 2000 Sarea. Hernio-Gazume KBE

Kontserbatzeko lehentasuna duten Batasunaren intereseko habitatak (BIH):

- \* 6210 Larre mesofiloak (*Brachypodium pinnatum*\*) orkidea bikainak dituzten parajeetan.
- \* 6230 *Nardus* generoko belar-formazioak, espezie ugariarekin, eremu menditsuetako substratu silizeoen gainean. Belardi menditarrak
- \* 91E0. *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieen baso alubialak.

## INGURUMENAREN HOBEKUNTZA

Baso degradatuak, sastrakadiak eta lurzoru marjinalak sartzten dira, baldin eta, haien barnealdean edo balio handiagoko eremuen ondoan egoteagatik, kalitate-maila handiagoetaranzko bilakaera onuragarritzat jotzen bada.

Degradazio-prozesuen ondorioz beren potentzial ekologikoaren zati handi bat galdu duten eremuak ere sartzen dira hemen, eta ingurumena lehengoratzeko lanak egin behar dira eremu horien kalitatea handitzeko. Kartografiatutako flora exotiko inbaditzailearen enklabeak ere kategoria honetan sartu dira.

#### BASOA

Gaur egun duten erabileragatik eta, batzuetan, erabiltzeko bokazioagatik (arriskuak, arrozen babes, etab.), zuhaitzi bat mantentzeko dedikazio argia duten espazioak dira. Espezie autoktonoak eta aloktonoak landatzea barne. Ez dira barnean hartzen behe-zonan eta landazabalean dauden egungo baso-masak, eremu hori osatzen duten elementuak direnak eta, beraz, nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerekin konbinatu eta txandakatu daitezkeenak.

#### BASOA. MENDI URRIA

Oro har, zuhaitzik gabeko eremuak dira, edo zuhaitz meheak edo degradatuak dituztenak. Garai batean jasaten zuten abere-zama txikitu ondoren, landare-bilakaeratik eratorritako sastrakadiak barne hartzen ditu. Batzuetan, eremu horiek lurzoru gutxi edo malda handia izaten dute, eta, horren ondorioz, komeni da zuhaitziak edo zuhaitz isolatuak ezartzea, batetik, arriskuak mugatzeko eta, bestetik, ganadua maneiatzen laguntzeko

Kategoria honetan sartzen dira luberritu gabeko lurrak, degradatuak, larre/sastrakadi eremuak edo mendi suharreko zuhaitziak dituztenak eta laboreen arteko muinoak edo mendi-mazelen beheko aldeak okupatzen dituztenak.

#### NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA. BALORE AGROLOGIKO HANDIA

Gaitasun agrologiko handiagoa duten lurzoruak eta modernotasunagatik, errentagarritasunagatik edo jasagarritasunagatik sektorearentzat estrategikotzat jotzen diren nekazaritza-ustategietako lursailak. Horregatik, debekatuta dago basogintza-erabilera.

#### NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA. LANDAZABALA (TRANSTIZIOKO LANDA- PAISAIA)

Balio Estrategiko Handiko Nekazaritza eta Abeltzaintza alorrak baino produkzio-ahalmen txikiagoa duten eremu landuak biltzen ditu (malda handiagoak), edo landazabaleko eremuak, belardiek eta haiekin mosaiko moduan egindako baso-unada txikiek estaliak. Berehala daude harremanetan balio estrategiko handiko nekazaritza eta abeltzaintzako eremuekin edo baso-eremu zabalekin, eta bokazioz, oro har, bi ildo horietako baterantz jotzen dute.

#### KORRIDORE EKOLOGIKOAK

Bizitza naturalari jarraikortasua emateko antolatzen diren eremu babestuak.

#### BEREN INGURUMEN-BALIOENGATIK BABESTUTAKO ESPAZIOAK

Naturagune garrantzitsuak, babes-figurarik izan gabe, beren ingurumen-balioetara egokitutako tratamendua izan behar dutenak.

#### INTERES GEOLOGIKOKO EREMUAK

Hauek dira puntu eta leku horiek:

- Interes geologikoko eremuak:

- Herniotik zintzilikatutako sinklinala (126. IGL)
- Alkizako hartxingadi zementua
- Gailurak eta Ernioko sinklinala iraulita

- Interes geologikoko puntuak:

- Alkizako hartxingadi zementua
- Kuartzozko diaklasak Irura eta Alkiza arteko errepidean

#### ZONA HIGAGARRIAK

Ezaugarri litologikoak eta erliebea direla-eta higadura-fenomenoak agertzeko arrisku handia duten eremuak dira.

#### AKUIFEROAK KUTSATZEKO ARRISKUA DUTEN ZONAK

Lurpeko akuiferoak kargatzeko eremuak dira, eta baliabide horiek kutsatzeko arrisku handia dute. Irizpide orokorra lurzorura kutsatzaileak isur ditzaketen jarduerak ez kokatzea izango da.

#### IBILGUAK ETA UR-BILKETAK BABESTEKO ZONAK

Ibai eta erreken ibilguak eta Iturburuak, iturriak eta ur-bilketak osatua da kategoria hau.

#### SUTE ARRISKUA DUTEN ZONAK

Zona honetan sartzen dira baso-eremu homogeenetan lehorte luzeek eragindako sute-arriskuak.

#### ONDAREA INTERESA DUEN ZONAK

Alkizako udalerrian ondare- eta arkeologia-elementu garrantzitsuak daude, lurraldeari interes handiko balio kultural eta etnologikoa ematen diotenak, lurraldearen irisgarritasunerako diseina daitezkeen konexio berrien artikulatzaile izan daitezkeenak.

#### PAISAIA INTERESA DUEN ZONAK

Gipuzkoako haranetako landazabaleko paisaia oso adierazgarriak, baserrietan oinarritutako nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduera bereizgarriarekin lotuta.

Alkizako baserriari lotutako paisaiek paisaia-balio handia dute, eraikinak eta haien inguruko baratze- eta larre-eremuak zaindu eta mantendu egiten direlako.

Interes geologikoko eremuak eta puntuak, Hernio menditik zintzilikatutako sinklinala udalerraren enklabe esanguratsua dela nabarmenduta.

Hernioko larre menditarretako artzain-eremuak.

Alkizako hirigunea bera, bere ondare-balioengatik eta ingurunean duen paisaia-ahokaduragatik.

#### ZONA AKUSTIKOAK

Eremu akustikoak, lurzoruaren erabilera nagusiaren arabera sailkatzen dira: bizitegia, industria, aisia, tertziarioa, osasun, hezkuntza eta kultura ekipamendua, garraio azpiegitura, eta naturguneak.

Zona horietarako kalitate akustikoko helburuak eta zarata-foku berrietarako muga-balioak finkatzen dira edozein jarduera berriak errespetatu ebhar dituenak.

#### KUTXATUTA EGON DAITEZKEEN LURZORUAK

Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak eta instalazioak dira substantzia arriskutsuak erabiltzeagatik edo hondakinak sortzeagatik lurzorua kutsatzeko aukera gehien dituztenak. Ezinbesteko baldintza da lurzorua ukituz garatzea.

#### ENERGIA BERRIZTAGARRIAK EZARTZEKO SENTIKORTASUNA

Baldintzatzaile hori behin-behinekotzat hartu behar da, harik eta Gaixotasun Arraroen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartu arte, azken dokumentuan ezartzen diren zehaztapenekin eta lurralde-zonifikazioarekin. Ordura arte, informazio-izaera baino ez du izan behar.

Lurraldeka, lau kategoriatan sailkatzen dira:

Ingurumen-sentsibilitate handieneko zonak: Ingurumen-sentsibilitate handieneko zonetan, a priori, ez litzateke gomendagarria izango parke eolikoak edo instalazio fotovoltaiakoak ezartzea.

Ingurumen-sentsibilitate handiko eremuak: Ingurumen-sentsibilitate handiko eremuak ingurumen-baldintzatzaile garrantzitsuak dituzte, eta, beraz, tokiko eskalan aldeztu aurretik berariazko azterketak egin behar dira, garapen eolikoa edo fotovoltaikoa ingurumenaren aldetik gomendagarriak diren edo zer baldintzatan den argitu ahal izateko.

Ingurumen-sentsibilitate ertaineko eremuak: Ingurumen-sentsibilitate ertaineko ingurumen-balioak dituzte. Balio horiek xehetasunez aztertu behar dira edozein garapen eoliko edo fotovoltaiko ezartzea aholkatu aurretik. Printzipioz, harrera-ahalmen handiagoa dute, dauden ingurumen-balioak kontuan hartzeko erreserben pean.

Ingurumen-sentsibilitate txikiko eremuak: Ingurumen-sentsibilitate txikiko eremuak dira, a priori, harrera-ahalmen onena dutenak, ingurumenaren ikuspegitik, parke eolikoak edo fotovoltaikoak garatzeko, azterketa-erreserben pean, proiektu-eskalan.

#### 1.2.4.2. HIRI-LURZORUAREN ANTOLAMENDUAREN DESKRIPZIOA

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen arabera egindako bizitegi-lurzoru eskaintzaren kuantifikazioaren kalkulua Alkizan 18 eta 85 etxebizitza artean aurreikusi behar direla ematen du, HAPO honen aurrerakineko dokumentuan ikus daitekeenez.

Aurrerakin dokumentuan planteatutako etxebizitzako barrutien aukera ezberdinen artean Udalak HAPO honen garapenerako hobetsitakoek 31 etxebizitzako aurreikuspena egiten dute. Horietatik 1 egun beste erabilera duen eraikin batean kokatzen da, 4 garapen baxuko bi familiako etxeetan antolatzen dira, 6 garapen baxuko etxe itsatsitan egiten dira eta azken 20ak eraikin irekitan antolatzen diren etxebizitzak dira.

Hiru dira eraikin berrietan egingo diren etxebizitza berriak hartuko dituzten hirigintza barrutiak.

Nagusia, 26 etxebizitza hartuko dituena, zoru hiritargarran antolatuko da.

Beste biak hiri-lurzoruan egongo dira, egungo hiri bilbeko hutsuneak betetzen. Zuzkidura-Jarduketaren eran antolatu dira, eta bakoitzak garapen baxuko bi etxebizitzako eraikin berri bakarria ordenatzen du.

Horien gain hirugarren zuzkidura-jarduketa bat definitzen da aurrerako egoeran daagoen etxe bat ordeztzeko. Eraikigarritasuna handitzen da baina ez da etxebizitza gehiagorik jartzen.

Orokorrean, hiru zuzkidura-jarduketak kenduta, hiri-lurzorua dagoen eran mantentzen da. Gaur egun dauden eraikinei plan honek ez die eraikigarritasun gehiagorik ematen, era berean ez du eraikinik eraistea aurreikusten.

Herrigunea 5 eremutan banatu da, eraikinen tipologia ezberdinen arabera, nahiko identifikagarriak direnak une historiko ezberdinen emaitzak direlako.

1. eremuak guneko historikoa hartzen du, jatorrizko baserriak, eraikin klasikoak, zuzkidura publiko eta pribatuak eta espazio libre nagusiak barneratuta. Dagoena kontserbatzea izango da eremu honen helburu nagusia, hala ere, bi etxebizitza egikaritzeko 1.1 zuzkidura-jarduereta eremu honetan dago, Elizegi eta Otsamendi Txiki etxeen artean kokatuta. 1.2 zuzkidura-jarduketa definitzen da errepidea Otsamendi eta eliza artean zabaldu ahal izateko eta horren ondoren 5. Eremuko espaloia luzatzeko, oinezkoen ibilbidea plazarekin lotzeko. Dagoen Eraikina ordeztuko da. Ez da etxebizitza berriak aurreikusi barruti honetan.

2. Eremuak Etxaburuako bi eraikinak hartzen ditu, sarrera bidea eta inguruko espazio libreekin, hiri-lurzoruko hegoaldeko muga eta errepidearen artean. Honetan ere HAPO honek ez du eraikigarritasun berriak ematen.

3. Eremuak herriguneko hego-mendebaldeko muturreko etxe taldea hartzen du, Hernio bailarara doan herribidearen bi aldeetara kokatzen dena. Etxebizitzako 6 eraikin ireki hartzen ditu, lursail pribatu eta inguruko espazio publikoekin batera. Aurrekoan bezala honetan ez da eraikigarritasun berriak aurreikusten.

4. Eremuak, herriguneko ipar-ekialdeko muturrean, errepidearen ondoren lerrotzeko diren garapen baxuko etxeak hartzen ditu, lursail pribatuak eta espaloia, errepidea 1. Eremuan geratzen delarik. Honetan kokatzen da bigarren zuzkidura-jarduketa (4.1 Zuzkidura-Jarduketa) besteak bezala garapen baxuko bi familiako etxea antolatzen duena. Eremuaren gainontzeko lursailetan HAPO honek ez du eraikigarritasun berriak ematen.

5. Eremuak Santiago Baselizako bidearen hegoaldera dauden bost etxebizitza bifamiliarren taldea eta bere lursail pribatuak hartzen ditu. Hauetan ere ez da esku hartze berririk aurreikusten HAPO honetan.

#### 1.2.4.3. ZORU HIRITARGARRIAREN ANTOLAMENDUAREN DESKRIPZIOA

Aipatu denez, hirigitzako barruti bakarra dago lurzoru urbanizagarrian: eraikin irekiko egoitza sailkapena duen 6. Sektorea.

20 etxebizitza eraikin irekietan eta 6 etxebizitza garapen baxuko itsatsitako etxetan. Guztiak tasatu munizipalak.

Sektore honen helburua herriko gazteentzat etxebizitza eskuragarriak eskaintzea da, herrian gera daitezen, herriaren identitatea sendotzeko.

Udalari sektoreko egikaritze prozesua errazteko, bere antolamendu xehatua HAPO honetan bertan definitzea erabaki da, garapen plangintzarik egin behar ez izateko, eta etxebizitzak merkatuan jartzeko epeak murriztu ahal izateko, gaur egun etxebizitza salmenta guztiz geldituta baitago Alkizan, Aurrerakin Dokumentuan adierazi zen eran.

Hiri-antolamenduaren ikuspuntutik, ordenazioak herri bilbearen ekialdeko itxitura planteatzen du. Hala ere, ordenazioaren bide antolaketa Aurrerakin dokumentuan ordenazio aukera ezberdinek osatzen zuten herrigunearen idea orokorraren parte dela baieztatu daiteke.

Herrigunearen errematea denez, horren atea nolabait, logikoa da, eta historikoki askotan frogatua, espazio publiko bat egitea trantsizio puntu horretan, egun herriguneak dituen nagusien osagarri, eta etxe berritan biziko direnen laketgarri, espazioa etxebizitza tasatuen lau eraikinek eratua izango baita plaza.

Garapen baxuko etxeak 5. Eremuan daudenen paraleloan antolatu dira, maila baxuago batean, horiei bistak ez kentzeko. Multzo homogeneoa eratuko dute.

HAPO honen G dokumentuko planoetan maila baxuago horretara jaitsiko den bide berri horren antolaketa ikus dezakegu.

#### 1.2.4.4. SISTEMA OROKORREN DESKRIPZIOA

HAPO honetan aurreko arau subsidiarioetan aurreikusitako sistema orokorrak mantendu dira, bi izan ezik, hiri-lurzoruan dauden bi elizak, ez baitira eraikin publikoak. Zuzkidura pribatuen eran duten garrantzia ez da ukatzen. Zenbait ekimen publikoetarako erabilgarriak eta aproposak badira ere, haien erabilera jabea den Eliza Katolikoaren menpe dago, eta beraz, herriak beharko lukeen egituratze beregainerako ez dute balio.

Eraikin publikoei dagokionez, Erretoretxe eraikina dagoeneko guztiz publikoa da eta zenbait zuzkidura kultural eta sozialetarako erabiltzen da normaltasunez.

Publikoa izatera pasa den beste eraikina udaletxearen ondoan dagoen Donjuanea da. Sistema orokorren baitan sartu da.

Bideei dagokionez, aurreko arau subsidiarioen aldaketaren bitartez definitu zen Perualdeako 1. Sektorean, plan partzialak aurreikusitako eta ondoren gauzatutako kalea, sistema orokorra egin dugu ere. Era honetan, hiri-lurzoruko mota guztietako bide, espaloi eta aparkaleku publikoak sistema orokorretan integratuta geratu dira. Salbuespen bakarra 2. Eremukoa da. Honen bidea publikoa izan arren, bertan dauden bi eraikinak zerbitzatzeko balio du nagusiki, eta noizbehinka frontoira materialak eramateko. Ez du jarraitutasunik eta bideen sarean mutur itsua da.

HAPO honek aurreikusitako garapenerako beharrezkoa da Espazio libreen sistema orokorrak handitzea Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legaren 78 artikulua xedatzen duena betetzeko. Hori egin ahal izateko, gestio publikoa izango duen 6. Sektorean espazio libreen sistema orokor bat aurreikusi da. Sektoreak udalerriko garapen nagusia hartzen du, 31 etxebizitza berrietatik 26 ordenatzen dira sektorean. Beste lauk hiri-lurzoruko bi zuzkidura-jarduketa txikitan ordenatu dira eta azkena egun beste erabilera duen eraikin batean. Barruti horiek tamaina txikikoak dira eta ez dute azalera nahikorik egin beharreko lagapenak barruan egiteko, eta beraz, lagapen horien balioa monetarizatu egingo da. Barruti bi horiei dagozkien espazio libreen sistema

orokorrerako dirua Udalak baliatuko du 6. Sektoreko Espazio Libreen Sistema Orokorra osatzeko, honen tamaia garapenerako hiru barrutien eskaera estaltzeko diseinatu delako.

#### 1.2.4.5. ZUZKIDUREN DESKRIPZIOA

Sistema orokorrak ez diren zuzkidura publiko bakarrak 2 eta 3 eremuen barne dauden sistema lokalak dira.

2 Eremuan espazio libreak kalifikazioa duen lursaila eta hiri bideak kalifikazioa duen lursaila dira. Eramuan eraiki gabeko azalera osoa hartzen dute. Espazio libreen lursaila 1 Eremuko espazio libreen sistema orokorraren jarraipen fisikoa da.

3. Eremuan espazio libreak kalifikazioa duten bi lursail daude, lehenengoa errepidearen paraleloan zerrenda bat osatzen du eremuko hego-mendebaldeko muturrean zabaltzen dena eremuaren zabalera osoa hartzeko. Bigarrena hiruki txiki bat da eremuko ekialdeko muturrean, egun ondoko etxean dagoen haurtzaindegia jolas parke bezala erabiltzen dena.

Horren gain, 3. Eremuan zuzkidura publikoko beste lursail bat dago, eraiki gabea, gaur egun lehen paragrafoan aipatutako lehen lursailari batzen zaiona parkea osatzeko.

Zuzkidura pribatuak dira herrigunean dauden bi elizak.

#### 1.2.4.6. KATALOGOAREN DESKRIPZIOA

Katalogoan udalerrian dauden interes historiko-arkitektonikoko eta interes arkeologikoa duten ondasunak identifikatzen dira eta zerrendatzen, arloko legeriak aurreikusten dituen babes baliabideak aplikagarriak izan diezaizkien.

Katalogoa osatzeko lehendik zeuden inbentarioak erabili ditugu; Alkizako aurreko ordezkio arauetan jasotako zerrenda, Gipuzkoako foru Aldundiak daukan zerrenda eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak dauzkanak ere, hala nola, monumentuen zerrenda, monumentu izendatzeko proposatuta dauden ondasun higiezin zerrenda, udal mailan babestuak izateko proposatzen diren ondasun higiezin zerrenda, balizko arkeologia guneen zerrenda eta babesteko proposatu diren gune arkeologikoen zerrenda.

Horien gain, HAPO honetan definitzen den katalogoan interes antropologiko eta kulturala duten beste elementu fisiko artifizialak sartu ditugu ere, gizakiaren ingurumenaren erabilerarako ezinbestekoak izan direnak eta paisaiaren osagarriak izatera pasa direnak duten historia dela eta, hala nola, herri-bideak, murrak e.a..

Katalogoko elementu arkeologiko eta arkitektonikoak Euskal Kultur Ondarearen 2019ko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak eta hori aldatzen duen 14/2023 Legeak xedatutako erregimenari atxikiko zaizkio, bai eta horiei buruz eman diren edo etorkizunean eman daitezkeen xedapen espezifikoak eta proiektu honetan bertan xedatutako erregimenari ere.

Eraikinetan, daukaten babes mailaren arabera, egin ahal izango diren esku hartzeen ezaugarriak zehazteko, Ondare Hiritartua Eta Eraikia Birgaitzeko Jarduketa Babestuei buruzko, abenduaren 30eko, 317/2002 Dekretuko, I. eranskinak definitzen dituen interbentzio erak erabili dira Katalogoan.

Gune arkeologikoei dagokienez, Balizko Arkeologia Guneak Finkatzeko Araudia ezartzen duen 234/1996 Dekretua ere jarraitu da Katalogoko araudia zehazteko orduan.

Arlo honi buruzko lege aurrikuspen, xedapen eta irizpideak bete egin dira katalogoa definitzeko orduan.

#### 1.2.4.7. ERAIKUNTZA EREDUAREN DESKRIPZIOA

Formari dagokionez, HAPO honek ez du eraikuntza eredurik planteatzen. Eraikin berrik jarraitu beharreko Irizpide batzuk planteatzen dira, gaur egun herriguneak duen profila eta pisaia balioak kalte ez ditzaten.

Eraikin berriak herriguneak gaur egun dituen eraikinen eskalara doituko dira. Hiri-lurzoruan eraikin berriak Formalki integratzen diren etxe-multzoen ezaugarriak egokituko dira.

Lurzoru hiritargarriko 6 sektorean planteatzen direnak erreferentzia hurbil bakarra 5. Eremuko bifamiliarrak dira, 6 sektorean aurreikusitako garapen baxuko etxe itsatsiei eragingo dietena, sestra gaineko itxurari dagokionez behintzat. Aurreikusten diren eraikin irekiak beste alde, dauden mailan daudela eragin gutxi edukiko dute herriguneko hodeiertzean, eta formalki neutroak izatea nahikoa izango da egokitzeke.

Horren gain, eraikin berriak irigarriak eta energetikoki eraginkorrak izan beharko dira. Zarata mailaren azterketa egin da herriguneari eta ez da arazorik izango aurreikusitako ordenazioak egin ahal izateko.

#### 1.2.4.8. AZPIEGITUREN DESKRIPZIOA

Azpiegituri dagokionez, udal zerbitzukoak direnak jasangarritasuna bermatuta daukate, ez bakarrik ekonomikoki, HAPO honen D Dokumentuan frogatzen denez, baita zerbitzatzeko ahalmenari dagokionez ere.

Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa 18. Artikuluko, 10. Atalean Oria ibaiaren erdialdeko 24 udalerriei, haien artean Alkiza, biztanleen kontsumorako ur-hornidurarako 2,67 hm<sup>3</sup>/urte esleitzen die, gauegun erabiltzen dituzten ur-baliabide lurazaleko eta lurrazpikoetatik hartu behar direnak. Kantitate horrek baliabide horien emari ekologikoa bermatzen du planaren arabera. Herri bakoitzerako batez-besteko biztanleen kontsumorako emaria 112.500 m<sup>3</sup>/urte da. Alkizak egun daukan biztanleen kontsumorako eskaera 41.109 m<sup>3</sup> da. HAPO honek eragingo lukeen eskaera gehitua 5.800,6 m<sup>3</sup>/urte da, D Dokumentuko 2.3.1.1 puntuan kalkulatu denez. Guztira 46.993,85 m<sup>3</sup>/urte lirakeke, Alkizak har dezakeen emaririk oso azpitik.

Ur-beltzen arazketaren aldetik, Alkizak duen tratamendu biologikoko planta 300 laguneko hondakin likidoak tratatzeko dimentsionatuta dago. Herriguneko etxebizitzak zerbitzatu ditu. Herriguneari 2022koak diren azken datuen arabera 195 biztanle daude, 68 etxebizitzetan. Beraz, 2,87 biz./etxe.. 31 etxebizitza berri aurreikusten ditu HAPOk herriguneari, 89 biztanle berri lirakeke. HAPO-ren aurreikuspenak gauzatu ondoren herriguneari 281 biztanle leudeke, araztegiaren zerbitzu-ahalmenaren azpitik.

Argireriko sarea proiektatuko da kasu guztietan, intentsitate txikiagoko argiztapen-mailaren aukera aurreikusiz, eta luminarien fluxua murrizteko ekipoak instalatzen maniobra-koadro berri guztietan. Kontsumo txikiago argiztapen-sistemak erabiliko dira, LED teknologiako lanparen bidez. Zutabearen altuera, lanparen potentzia eta beste ezaugarri teknikoak eraginortasun energetiko handiena lortzeko dimentsionatuko dira. Lurzorura zuzendutako argiztapen-sistemak erabiliko dira, gaueko zeruaren argi-kutsadura eta gainkontsumoa murrizteko.

#### 1.2.4.9. INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINA

IAEak sakon aztertzen ditu hirigintza-eremu bakoitzean proposatutako jarduketek sor ditzaketen ingurumen-ondorioak, eta eragin horiek minimizatzea bideratutako neurri zuzentzaileak eta babesleak proposatu ditu.

Aldez aurretik, kontuan hartu behar da a priori lurzoru urbanizaezinen zonakatzeko-proposamenetik eta hari gainjarritako zenbait baldintzatzailerik sartzetik ingurumen-ondorio positibo batzuk eratorritzen direla, natura- eta paisaia-balio nagusiak eta, ondorioz, udal-mugarteko biodibertsitatea kontserbatzeko eta/edo hobetzeko proposamenetik eratorriak:

Hernio Gazume KBEaren babes eraginkorra bermatzen da. HAPO honek planteatzen dituen jarduketek ez dute inolako eraginik izango KBEaren natura-balioetan. Horrela, ez da aurreikusten Plan Orokorra guneko horretarako identifikatutako kontserbazio-helburu bakar batean ere inpakaturik eragingo duenik.

Horrekin, baloratu da Alkizako Plan Orokorra proposatutako jardueren garapena ez dela mehatxua Hernio-Gazume KBEaren kontserbazio-helburuetarako, eta, beraz, ondorioztatu da Plan Orokorra leku horretan EZ duela eraginik.

Plan Orokorra Hernio-Gazume KBErako tokiko babes-araubide berri bat gehitzea aurreikusten du, EAEko Lurralde Antolamenduen Gidalerroetan ezarritakoa betez. Alkizako udal-mugartearen mugen barruan dagoen KBE honen azalera lurzoru urbanizaezinen antolamendu-kategorian sartu da, "Babes bereziko eremuak- Natura 2000 Sarea" izeneko kategoria batean. Kategoria horretarako, Hernio-Gazume (ES2120008) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duen eta eremu horrek dituen natura-balioak kontserbatzeko neurriak onartzen dituen urriaren 16ko 219/2012 DEKRETUAK ezartzen dituen kategorizazioa eta erabilera-araubidea ezartzen dira.

Horrekin, Plan Orokorra indartu egiten du eremu hori babesteko eta zaintzeko indarrean dagoen legeria, baina ez da haren kudeaketan sartzen, Hernio-Gazume KBEaren Kudeaketa Planak arautzen baitu.

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**L DOKUMENTUA. PLANAREN LABURPEN EXEKUTIBOA**

---

Beraz, ondoriozta daiteke Plan Orokor honek eragin positiboa izango duela espazio horren funtzionaltasun ekologikoari eta koherentziari eusteko, eta HAPO honek proposatutako jarduketek ez dutela eragin zuzenik izango Hernio-Gazumeko KBEko naturagunean.

Udal-mugartean hedatzen diren intereseko landaredia eta habitat gehienak mantentzea bermatzen da, eta babes bereziko eremu gisa sartzten dira.

Interes handieneko fauna-habitatak zaintzen dira.

Ibai-sarearen kontserbazioa sustatzen da, kategoria espezifikotzat hartuta, Azaleko Uren Babesa, eta Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeke LPSko zehaztapenekin bat datorren erregulazioa eginez.

Kultura-ondare arkitektonikoa, arkeologikoa eta etnografikoa babesten da, eta Hirigintza Ondarearen Katalogoan sartzten dira.

Balio agrologiko handieneko lurzoruetarako babes bat ezartzen da, eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako eta Balio Handiko Landazabaleko eremuak mugatzen dira, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren arabera.

Paisaiaren kalitate handieneko eremuak lurzoru urbanizaezinean sartzten dira, eta, beraz, beren kalitatea honda dezaketen garapenetatik babestuta geratzen dira.

Arrisku naturalen aurrean kalteberak diren eremuak zaintzen dira.

Ingurumena hobetzeko eremuak ezartzen dira, ingurumena lehengoratzeko beharra dutenak berreskuratzeko.

Udal-mugartean azalera osoaren % 99,5 lurzoru urbanizaezina da. Lurzoru urbanizaezineko zonakatzea, oro har, ingurumen-unitateak identifikatzearen emaitza da.

Lurzoru berrien urbanizazioa 0,92 ha handituko da (proposatzen den lurzoru urbanizagarriko sektore berriari dagokiona), hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lurzoruaren % 17 inguru.

Nekazaritzako lurzoruaren okupazioari dagokionez, lurzoru urbanizaezinen antolamendu-proposamenak Nekazaritza eta Abeltzaintza kategoria antolatzen du: 277 ha, KBEan sartuta ez dagoen lurzoru urbanizaezinen azaleraren % 40 (693,6 Ha + 502 Ha. (KBE)). Kategoria hori "Balio Estrategiko Handia" eta "Trantsizioko Landa Paisaia" ("Landazabalak" ere deitua HAPO honetan) azpikategorietan banatu da, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak ezartzen duen bezala. Plan Orokorrak "Balio Estrategiko Handiko" lurzoruak babesten ditu. Horretarako, Nekazaritza eta Basogintzaren LAPean ezarritako mugaketa hartu da oinarritzat, proposamena egin den eskalarik zehatzenera egokitu ondoren. "Balio Estrategiko Handiko" azalera 32 hektareatan hedatzen da, eta horiei balio agrologiko handiko lurzoruak gehitu beharko litzaizkieke, "Azaleko Uren Babesa" kategorian sartzten direnak, Alkizako ibilguetatik hurbil daudelako. "Trantsizioko Landa Paisaia" azpikategoriak, bestalde, 245 Ha-ko azalera du.

Intereseko habitat eta espezieen babesari dagokionez, Plan Orokorrak "Babes Berezia" kategoria ezartzen du. Kategoria horretan sartzten dira udalerrian kontserbatzen diren baso autoktonoak (baso mistoak, pagadiak, haltzadiak, landaredi kasmofitikoa) eta lehentasunezko intereseko habitatak, hala nola *Brachypodium pinnatum* espezieko larre mesofiloak, *Nardus* generoko formazio belarkarak, espezie ugariarekin, eremu menditsuak substratu silizeoen gainean, eta *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieetako baso alubialak. Era berean, eta Hernio Gazumeko KBEa babes-maila handienarekin karakterizatzeko, Babes Bereziko Kategoria (KBE) sortu da, KBEaren beraren antolamendu-kategoriekin eta dagokion erabilera-arauketarekin.

Lurrazaleko ibilguetan izandako eraginei dagokienez, ur-masak "Lurrazaleko uren babesa" kategorian sartu dira, eta haren erregulazioa Kantauri Ekialdeko Demarkazioaren Plan Hidrologikoan eta EAeko Ibai eta Erreken LPSn ezarrita dago.

"Akuiferoak kutsatzeko arriskua duten eremuak" ere gainjarritako baldintzatzailetzat hartu dira, kalteberatasun handia edo oso handia duten eremuak barne.

Natura 2000 Sarearen gaineko eraginari dagokionez, Plan Orokor honek eragin positiboa izango du eremu horren funtzionaltasun ekologikoari eta koherentziari eusteko, eta HAPO honek proposatutako jarduketek ez dute eragin zuzenik izango Hernio-Gazumeko KBEko naturagunean.

1. Eremuan 220m<sup>2</sup>-ko lurzoru naturala artifizializatzea proposatzen da. Lurzoru hori hiri-lurzorua da gaur egun indarrean dauden arau subsidiarioetan, baina ez zegoen garatuta. Ez da aurreikusten, a priori, ingurumen-aldaketa esanguratsuak eragingo dituen jarduketarik. Hala eta guztiz ere, ingurumen-azterlan honek ingurumenean izan ditzakeen ondorioak eta arriskuak aztertzen ditu.

Prozesu eta arrisku geoteknikoak eta ingurumenekoak kontuan hartuta, egiaztatu da 1. eremuko zuzkidura-jarduketaren xede izango den lurzatiak arazoak izan ditzakeela euste-ahalmenari eta asentuei dagokienez. Ez da iragazkortasun-fenomenorik espero, ezta akuiferoak kutsatzeko arriskurik ere. Zuzkidura-jarduketa planteatzen den eremuak, zehazki, baratze-eremu txiki bat du gaur egun. Eremuan EZ dago nekazaritza-produktibitate handiko lurzorurik, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren arabera (balio estrategiko handia), ezta LPPan zehaztutako nekazaritza-intereseko eremuen gainean ere. Hiri-lurzoruko baratze txikiaren gaineko eragina bateragarria da. Alkizako hirigune historikoa denez, HAPO honek paisaia-interesekotzat jaso du eremua, eta, beraz, egin daitezkeen jarduketek ez dute eragin esanguratsurik izango, baldin eta hirigintza-araudia eta araudi horrek eraikinetan ezartzen dituen zehaztapenak errespetatzen badituzte. Proposamena kontuan hartuta, ez da

Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren arabera (balio estrategiko handia), eta ez du eraginik nekazaritza-lurzatietan.

Aurreko eremuan bezala, oso ikusgarria denez, eraikuntza-proiektuaren paisaia-integratioko azterlan bat egitea gomendatzen da. Ingurumen-azterlan honetan ingurumen-arriskuak minimizatzeko, eraikinen jasangarritasun energetikorako, paisaiaren kalitaterako eta obrak egiteko aurreikusitako neurriak hartuko dira kontuan.

6. SEKTOREA gaur egun indarrean dauden arau subsidiarioetan lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen den eta bizitegitarako lurzoru urbanizagarri bihurtzen den eremu bat birsailkatzea proposatzen da. Horrek 9.035 m<sup>2</sup>-ko lurzoru naturala artifizializatzea dakar. Eraldaketa hori eragin negatibo ertain gisa baloratu da.

Prozesu eta arrisku geoteknikoak eta ingurumenekoak kontuan hartuta, egiaztatu da 6. sektoreak arazoak izan ditzakeela sostengu-ahalmenean eta eserlekuetan. Maldak kontuan hartuta, ez da higadura- eta ezegonkortasun-arrisku nabarmenak sor ditzakeen faktoretzat hartzen. Ikuspuntu hidrogeologikotik, ez da iragazkortasun-fenomenorik espero, ezta akuiferoak kutsatzeko aukerarik ere.

Eremua, zehazki 6. sektoreko jarduketak planteatzen diren eremua, sega-belardiez eta baratze txiki batez osatuta dago lurzatiaren ipar-ekialdeko muga. Ez dagokio Batasunaren intereseko habitatei. Beraz, belardi eta baratzeen 0.90 ha-ri eragingo die, eta sektorearen antolamendua garatzean desagertu egingo dira.

Eremuan ez dago nekazaritza-produktibitate handiko lurzorurik, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren arabera (balio estrategiko handia). SIGPACeko informazioaren arabera, eraldatuko den eremuak nekazaritzako 4 lurzati hartzen ditu gaur egun. Neurrizko eragin negatibotzat hartzen da.

Kontuan hartuta bizitegi-sektore berriaren garapenak eta beharrezko azpiegiturek okupatuko duten azalera, eta egokitzeko eta berdintzeko aurretiazko lanak, lur-mugimenduen bolumena nahiko handia izatea espero da.

Sektorea oso ikusgarria denez, sektorea garatzeko proiektuaren paisaia-integratioko azterlan bat egitea gomendatzen da. Ingurumen-azterlan honetan ingurumen-arriskuak minimizatzeko, eraikinen jasangarritasun energetikorako, paisaiaren kalitaterako eta obrak egiteko aurreikusitako neurriak hartuko dira kontuan. Bizitegi-sektore berria diseinatzerakoan, naturan oinarritutako irtenbideak aplikatuko dira, eta lehentasuna emango zaie drainatze jasangarriko sistemei eta ura iragaztea errazten duten eta lurzoruen artifizializazioa minimizatzen duten beste irtenbide batzuei.

#### 1.2.4.10. JASANGARRITASUN ENERGETIKOA

Plan orokorrak 4/2019 legea bete behar du, eta baita ere Jasangarritasun Energetikoari buruzko azaroaren 10eko 254/2020 Dekretua, legea garatzen duena.

Kargatzeko edo erregaia hartzeko guneak jartzea jendearentzat eskuragarri, erabiltzaileei diskriminaziorik gabeko sarbidea ahalbidetzen dien ordezko erregai bat hornitzeko.

Kanpoko argiteria publikoaren eraginkortasun energetikoa altuena izan dadin, Eraikuntzako eta Urbanizazioko Ordenantza H Dokumentuko 61 artikuluaaren 6. Puntuan xedatutakoak bete beharko dituzte urbanizazio proiektu berriek.

Mugikortasun jasagarria bultzatzeko urbanizazioetan bizikletak aparkatzeko instalazio babestuak jarriko dira.

Eraikin berriek energia berriztagarriak sortzeko aukerak aprobetxatuko dituzte; eraikinen estalkietan plaka fotovoltaikoak jartzeko aukera aztertuko da eguzki-energia energia-iturri gisa erabiltzeko, eta eraikinetan beroa sortzeko energia geotermikoa edo aerotermikoa erabiltzea gomendatzen da.

Garapen berriko 6 Sektorean energia termikoko sistema zentralizatu ezartzearen bideragarritasuna aztertuko da, hiri-beroko sare bidez iturri berriztagarri sortutako energia etxebizitzako eraikin guztietan banatzeko.

Eraikuntzako eta Urbanizazioko Ordenantzak H Dokumentuko 15 eta 36 artikuluetan, Alkizan HAPO honek ordenatzen dituen eraikin guztiei eragiten dietenak, berriaz aipatzen da eraikinek 4/2019 Legea eta hori garatzen duen 254/2020 Dekretua bete behar dituztela.

### **1.2.5. GENERO ARLOKO IKUSPEGIA**

Generoaren araberako eraginaren ebaluazioak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta EAEko Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21ean onartutako jarraibideek (genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzkoak) zehazten dituzte.

Hiria Antolatzeko Plan Orokorren diseinuan genero-ikuspegia sartzera bideratutako helburuak betetzeko, erraz irakurtzeko moduko espazio publikoak diseinatu dira, bazterreko edo atzeko eremuak, eremu ilunak edo argiztapen txikiagoko eremuak saihestuz, oinezkoentzako zein bizikletentzako ibilbideak eta garraio publikoaren aukera etxebizitzetara hurbilduz eta ekipamendu publikoak hiri-bilbean tartekatuz.

### **1.2.6. HAURTZARO ETA NERABEZAROAREN ARLOKO IKUSPEGIA**

Arau-eraginaren azterketari buruzko memoria arautzen duen urriaren 27ko 931/2017 Errege Dekretuak 2. artikuluan ezartzen duenez, hirigintza-planen eraginaren analisiaren memoriak, besteak beste, haur eta nerabeengan izango duen eraginari buruzko atal bat izan beharko du.

Espazio publikoa, inklusiboa izateko, hiriak gizabanakoaren garapen integrala bermatu behar du: mentala, fisikoa eta soziala. Horregatik, hiria diseinatzeko oinarri gisa, bereziki interesgarria haurren begirada.

Bete den beste helburu bat ingurune fisiko eta sozial bat lortzea izan da, edozein haurrak jarduera ludikoa, indibiduala edo kolektiboa, egiteko duen eskubidea, etxetik gertu eta helduen parte hartzerik gabe gauzatu ahal izan dezan. Alkizak tamaina eskuragarria dauka, ez du biztanle askorik, eta haur askok elkar ezagutzeko duten erraztasunak eraginda, haurrak laster hasten dira kalera modu independentean irteteko moduan.

Azkenik, berdegune irisgarriak, belaunaldien artekoak, hurbilekoak eta bizigarriak sortzeko eta babesteko hiri-ingurunea ere da.

### **1.3. LABURPEN KOADROAK**

Koadroen azalera planoetan hartutakoak dira.

<b>SAILKAPENAREN KOADROA</b>			
<b>SAILKAPENA</b>	<b>BARRUTIA</b>	<b>AZALERA (m<sup>2</sup>)</b>	<b>%</b>
<b>HIRI-LURZORUA</b>	1 EREMUA	26.404	<b>0,37</b>
	2 EREMUA	2.561	
	3 EREMUA	6.604	
	4 EREMUA	6.045	
	5 EREMUA	3.255	
	<b>GUZTIRA</b>	<b>44.869</b>	

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
 BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**L DOKUMENTUA. PLANAREN LABURPEN EXEKUTIBOA**

LURZORU URBANIZAGARRIA	<b>6 SEKTOREA</b>	<b>9.251</b>	<b>0,08</b>
LURZORU URBANIZAEZINA		<b>12.059.054</b>	<b>99,55</b>
<b>UDALERRI OSOA</b>		<b>12.113.174</b>	<b>100</b>

<b>KALIFIKAZIO OROKORRAREN KOADROA</b>		
<b>KALIFIKAZIOA</b>	<b>BARRUTIA</b>	<b>AZAL. (m<sup>2</sup>)</b>
ALDE ZAHARREKO EGOITZA (A1)	<b>1 EREMUA (A1)</b>	<b>12.824</b>
ERAIKIN IREKIKO EGOITZA (A2)	<b>A2</b>	<b>29.043</b>
	2 EREMUA	2.561
	3 EREMUA	5.377
	6 SEKTOREA	8.281
GARAPEN BAXUKO EGOITZA (A3)	<b>A3</b>	<b>8.420</b>
	4 EREMUA	5.632
	5 EREMUA	2.788
KOMUNITATE-EKIPAMENDUKO SISTEMA OROKORRA (C)	<b>1 EREMUA (C)</b>	<b>5.141</b>
HIRIARTEKO BIDEEN SISTEMA OROKORRA (E1)	<b>E1</b>	<b>27.254</b>
HIRI-BIDEEN SISTEMA OROKORRA (E2)	1 EREMUA (E1)	2.465
	L. URBANIZAEZINA	24.789
	<b>E2</b>	<b>4.186</b>
	1 EREMUA	2.079
	3 EREMUA	1.227
ESPAZIO LIBREEN SISTEMA OROKORRA (F)	4 EREMUA	413
	5 EREMUA	467
	<b>F</b>	<b>4.866</b>
HERNIO-GAZUME KBE-REN ZONIFIKAZIOA	1 EREMUA	3.896
	6 SEKTOREA	970
	<b>KBE</b>	<b>5.071.238</b>
BESTE ZORU URBANIZAEZINA	ZAE2	855.424
	ZPE	1.865
	ZAE1	3.583.685
	ZEN	74.213
	ZRE	556.051
	<b>E1 ZONA KENDUTA</b>	<b>6.963.027</b>
	BABES BEREZIA (D1)	2.134.718
INGURUMEN HOBEKUNTZA (D3)	73.024	
BASOA (D4)	1.913.871	
BASOA. MENDI URRIA (D5)	209.012	
LANDAZABALA (D6)	2.306.138	
BALORE ESTRATEGIKO HANDIA (D7)	326.264	

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
**BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA**  
**L DOKUMENTUA. PLANAREN LABURPEN EXEKUTIBOA**

<b>ERAIKIGARRITASUNEN KOADROA</b>							
<b>BARRUTIA</b>	<b>ERAIKIGARRITASUNA</b> m <sup>2</sup> (t)						
	<b>FISIKOA</b>					<b>HIRIGINTZAKOA</b> <small>(Zuzkidura publikorik gabea)</small>	<b>HAZTATUA</b> <small>(Erabileren arabera haztatua)</small>
	<b>Sestra azpian</b>		<b>Sestra gainean</b>		<b>GUZTIA</b>		
	<b>Zahar</b>	<b>Berri</b>	<b>Zahar</b>	<b>Berri</b>			
1 EREMUA	434	30	13.215	310	13.524	10.468	30.300
2 EREMUA	0	0	1.562	0	1.562	1.562	1.294
3 EREMUA	0	0	4.570	0	4.570	4.570	4.619
4 EREMUA	0	0	2.038	333	2.371	2.371	5.716
5 EREMUA	327	0	1.650	0	1.977	1.977	5.344
6 SEKTOREA	0	2.053	0	3.204	5.257	5.257	9.357

Alkizan 2025eko irailean

Talde Egilea

Migel Anjel Irazabalbeitia, Pedro Izaskun, Amagoia Azurmendi, Cristina Burgos, Borja Izaskun, arkitektoak

Teodoro Cacho, abokatua



**ALKIZAKO UDALA**

**DILIGENTZIA:** Egiaztatzeko, Alkizako hiri antolamenduko Plan orokorrari, 2024ko irailaren 3an egindako udalbatzarrak hasierako onespena eman ziola eta 2025eko azaroaren 25ean eginiko udalbatzarrak behin behineko onspena eman ziola.

Alkizan 2026 ko urtarrilaren 20an.

**IDAZKARI KONTUHARTZAILE AKZIDENTALA**

Sin. Maite Iraola Agirresarobe